

## DBH1 MATematika: "Gauza orok du bere neurria" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Informazio kuantitatiboa behar adinako zehaztasunez eta zuzentasunez adierazi, eta, helburuaren arabera, zenbakiak eraldatu, zenbaki mota egokiena aukeratu.	<p>1.1. Zenbakiak zuzen adierazi eta sailkatu ditu eta haien funtzioa identifikatu du.</p> <p>1.2. Zatikibaliokideak eta haien zatiki sinplifikaezina identifikatu ditu eta anplifikazio- eta sinplifikazio-prozeduren bidez zatiki baten baliokideak lortu ditu</p> <p>1.3. Zatikibaliokideak, hamartar eta ehunekoaren arteko adierazpen baliokideak identifikatu ditu eta adierazpen horietako batetik abiatuta besteak lortu ditu.</p>
2. Magnitudeak neurtu eta adierazi, tresna eta unitate egokiak baliatuz eta neurketaren emaitza balioetsiz	2.1. Egoerak hala eskatu duenean, sistema metriko hamartarreko eta hirurogeitarreko unitate-aldaketak egin ditu.
3. Era guztietako zenbakiekin kalkuluak egin, kalkulurako eta adierazpenerako teknikarik egokiena baliatuz (mentala, algoritmikoa, kalkulagailua, kalkuluorria...)	<p>3.1. Kopuru baten zatia kalkulatu du, zatikiak zein ehunekoak baliatuz; halaber, zatiki baliatzen ditu igoeren eta beharpenen azken balioak kalkulatzeko.</p> <p>3.2. Erosketa baten faktura edo ekintza baten aurrekontua osatu du, kalkulu-orriko txantilo batean oinarrituta</p>
4. Era guztietako zenbakiak, oinarrizko lau eragiketak eta zenbakien arteko erlazioak erabiltzea eskatzen duten problema numerikoak ebaztean, zeregin hori burutzeko landutako jarraibideak aplikatu.	<p>4.1. Problema ulertu du, hau da, eskakizuna, datuak eta baldintzak identifikatu ditu</p> <p>4.2. Ebazpena planifikatu du, hau da, hasierako adierazpena bereizi edo sortu du, baliabide matematiko egokiak aukeratu ditu eta ebazteko urratsak aurreikusi ditu</p> <p>4.3. Problema ebazti du, baliabide matematiko egokiak erabiliz eta hizkuntza matematikoa zainduz</p> <p>4.4. Emaitzaren onargarrtasuna aztertu du eta emaitza esaldi oso batez komunikatu du, hau da, emaitzaren zehaztasuna, unitateak eta hizkuntza eta sinbologia matematikoa zainduz.</p>
5. Zatikien esanahia ulertu, baliokidetasunaren erabilgarritasuna hausnartu. Zatikien arteko oinarrizko eragiketak burutu, soilak zein konbinatuak horretarako lehentasun arauak kontuan izanda.	<p>5.1. Zatikien arteko oinarrizko eragiketak identifikatu eta jarraibideak dakizki emaitza sinplifikatuenera iristeko.</p> <p>5.2. Adierazpen matematikoen eskatzen dituzten eragiketak egin ditu, lehentasun-arauak aplikatuz.</p> <p>5.3. Zenbakien deskonposaketa-faktoriala egin du, beharrezko errekurtso gisa mkt, sinplifikaketa edo biderketak egiteko.</p> <p>5.4. Argudio matematikoak era zuzenean eta idazkera egokiz adierazi ditu.</p>